

ETXAGOK ANA BEGIRA

2012KO MARTXOA - 157. ZKIA.



Martxo

AURKIBIDEA

- 03 III. Futbolin Txapelketa Kuboan
- 04 Diskofesta
- 05 IV. Saskibaloi Txapelketa Topalekuan
- 06 Irteera: Dakar Karting (Gasteiz)
- 07 Kontzertua: Zea Mays
- 08 III. Bertso Paper Lehiaketa: Sariak
- 10 Gazte Kultur Jarduerentzako Diru-Laguntzak (I.)
- 12 Gaztelekua Herrijorran

SHARON STONER

Isilaldi luzearen ondoren, SHARON STONER hirukoa bueltan da lan berriarekin, eta baita taularen gainean ere. *"Puntu bakar batean elkartzen diren ertzak"* da lan berriaren izena, eta Errekaldeko Musika Eskolan eta Sonido XXI estudioan grabatu dute Iban Yaniz musikari oñatiarraren gidaritzat teknikopean. Nahasketak ere Ibanek egin ditu. Otsailaren 24an egin zuten lan berriaren aurkezpena, eta gauean Gaztelekuan izan genituen diskoa zuzenean aurkezten, TRUNBO taldearekin batera.



ETXAGOKA AMA BEGIRA - 2012ko MARTXOA - 157. zkia

KUBOKO EGITARAUA

III. FUTBOLIN TXAPELKETA



Martxoak 17, Zapatua, 17:00etan
Izen-emate epea: Txapelketa hasi arte

ETXAGOKA AMA BEGIRA - 2012ko MARTXOA - 157. zkia

TOPALEKUKO EGITARAUA

DISKOFESTA

SOUND PROJECT-EN ESKUTIK



MARTXOAK 18, DOMEKA, 17:30ETAN

TOPALEKUKO EGITARAUA

IV. SASKIBALOI TXAPELKETA

Gazteleku formatuan



2 * 2
ESPONJAZKO
BALOIAREKIN

Martxoak 23, ostirala, 18:30etan
Izen-emate epea: Txapelketa hasi arte

TOPLAEKUKO EGITARAUA

Urtero bezala, irteeren atalean ezin zitzaigun gidaketari loturikoa falta. Martxoan joango gara Gasteizko Dakar Karting gunera.



Bi ataletan banatuko da bertan egingo duguna: bide-
hezkontza batetik, eta aisialdi gidaketa bestetik. Gogo-
ratu bazkaltzekoa norberak eraman beharko duela, eta
guraso edo tutoreen baimena beharrezkoa dela parte
hartzeko. Ah! Autobusa goizeko 9:45etan aterako da
Posta Bulegotik (Korreos).

MARTXOAK 24 ZAPATUA

IZEN-EMATE EPEA: MARTXOAK 15A ARTE

ETXAGOKA AMA BEGIRA - 2012ko MARTXOA - 157. zkia

KONTZERTUA

Oñatiko Gaztelekuan



**ZEA
MAYS**

Martxoak 30, ostirala, 23:00

Sarrera: 6 euro

Gaztelekuko BERTSO PAPER lehiaketa



Aurten ere oso arrakastatsua izan da Oñatiko Bertso Eskolak eta Gaztelekuak antolatzen duten Bertso Paper Lehiaketa. Eskerrik beroenak parte hartu zenuten guztiei, zorionak saria jaso zenoteni, eta esker bereziak Bertso Eskolako lagunei eta sariak banatzen aritu zen Beñat Gaztelumendiri.

Otsailaren 3an ospatu zen Gaztelekuan III. Bertso Paper Lehiaketaren sari-banaketa saioa. Gazte (eta ez hain gazte) pila bat hurbildu zen Gaztelekura, batzu sariak jasotzera, beste batzu luntxaren usainean, Baina giro bikaina izan zen, batez ere lehiaketan sariren bat jaso zuten guztientzat. Hauetxek dira aurtengo podiuma osatu duten gazteak:



LH sailean:

- 1.- Maddi Guridi
- 2.- Intza Osa
- 3.- Maddalen Arenaza
- 4.- Xabier Agirre
- 5.- Joakin Egaña

DBH – Batxilego sailean:

- 1.- Maider Arregi
- 2.- Aitor Regueiro
- 3.- Olatz Baladron



Alpamen berezia:

Aitor Urizar eta Josu Arenaza



Kultur jarduerentzako diru-laguntzak 2012 (I. deialdia)

Oñatiko gazteek eta gazte talde edo elkarteek euren kultur jarduerak aurrera ateratzeko diru-laguntzen lehen deialdia luzatzen du Udalak. Beraz, badakizue, baldintzak betetzen dituzuela us-tez gero, ondoren azaltzen dizuegun bezala egin beharko dituzue zuen eskaerok.

Hainbat kontzeptu ezberdinei emango zaie laguntza, bestiek beste, urteko programaketa eta elkarteen sustapena, kultur sormena eta hedapenaren sustapena eta laguntza, materialaren erosketa eta eraberritzea edota bestelako ez-ohiko jarduerak. Diru-laguntza hauek jaso ahal izateko gutxieneko baldintzak, beti bezala, honako hauek dira: erakunde, talde, edo norbanako eskatzaileak oñatiarra izan behar du, eta talde eskatzailearen kideen erdia gutxienez 12 eta 30 urte bitarteko adin esparruan izan beharko da. Banakoa izanez gero ere, adin esparru horren barruan izan beharko du. Baldintza Hajek betetzen badituzu, lehenik eta behin dirulaguntza eskatu ahal izateko idazki ofiziala eskatu eta berau bete beharko duzu, Gazte Informazio Puntuan emango dizueten idazkia.

Idazkia bete ondoren, taldearen curriculuma aurkeztu beharko da (orain arte egindako jarduerak, helburuak, baliabide materialak, ...), taldeko arduradunaren nortasun agiria-ren kopia batekin batera. Dirulaguntza egitarau bat aurrera ateratzeko baldin bada, egitarau bakoitzeko fitxa bat bete beharko da, jarduera horren

gastu-sarreren aurrekontua, eta aurreikusten diren epe, data eta helburuak zehaztuz.

Etxagok Ama Begira hau kaleratzearekin batera argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean informazio hau, eta une horretatik aurrera 20 eguneko epea izango da eskaerak aurkeztu ahal izateko. Eskaera egin eta 60 egunera erantzunik jasoko ez balitz, eskaera ez dela onartzen ulertu beharko du eskatzaileak. Haur eta Gazteria Batzordeak eskaera guztiak aztertuko ditu, eta beharrezkoa ikusiko balu, egokitzat jotzen dituen txostenak eskatu ahal izango ditu. Zeren arabera baloratuko duen Batzordeak lan bakoitza? Ondorengo parametroak dira erabiliko direnak:

- Egingo den jarduera edo egitarauaren kalitatea, ekintza kopurua, ...
- Talde eskatzaileak urtean zehar aurrera daramatzan lanak herriko giza eta kultur mugimendua sustatzen laguntzea, eta Udalaren ekimenetan partehartzaile izatea.
- Taldeak bere lanean erakusten duen jarraipena eta egonkortasuna.
- Garatutako jarduerak herriko gazte guztiei zuzentzea.
- Taldeak bere lanean euskararen erabilpena sustatzea.

Behin jarduera eginda, ebaluaketa fitxa bat bete beharko da, hau ere Gazte Informazio Puntuari emango dizuetena, eta fitxa honekin batera jardueraren balantze orokorra, fakturen frogagiriarekin batera, eta baita jarduera egin izanaren dokumentazio grafikoa ere (kartelak, liburuxkak, prentsa oharrak, ...). Azken hau kontsideratuko da jarduera egin izanaren ziurtagiria. Dokumentazio hau ez aurkezteak, dirulaguntza bertan behera gelditzea ekarriko du automatikoki, gainerako baldintzaren bat ez betetzeak bezalaxe.



GAZTELEKUA HERRIJORRAN

Gaztelekuko prozesu parte-hartzaileko 2.deialdi irekia

Bigarren deialdi hontan lehen bilerako puntuak eztabaidatzen jarraituko dugu eta egin den landa-lana azalduko da. Bereziki azpimarratu nahi da aurreko deialdian izan ez ziren sektoreak etortzearen beharra, batez ere etorkinak eta emakumeak, oso garrantzitsua bait da herriko sektore guztien ordezkaritza prozesu honetan. Anima zaitezte!

Martxoak 31, Larunbata
goizeko 11:00etan Gaztelekuan